



ESKOLA TXIKIEN III. TOPAKETAK.

HITZALDIAK

Roser Boix
Nekane Otxoa
Juan Kruz Igerabide

TAILERRAK

Aiton-amonak eskolan
Gurasoen tailerra
Artearen inguruan
Txinkorta eskola
Lau jaio-berri Zerainen
Inguruko hegaztiak
Jatetxea
Portfolio Europarra
Bihurrikeriak denboran kokatzen.

JARDUNALDIEN BALORAZIOA

Lan honen koordinatzaileak:

Isabel Lakuntza
Arantxa Oliden

Maketatzailea: Eva Garcia

AITON –AMONAK ESKOLAN

Elo Elizalde

ZUBIETAKO ESKOLA utopia bat bizi nahian dabil bere ikasleekin. Eskolak xede hauek betetzea nahi dute:



- Haurrak eskolara pozik etortzea.
- Eskolan inor ez aspertzea.
- Eskola munduari irekita egotea.
- Haurren sormena errespetatzea.
- Haurrek berezko duten ilusio eta interesa ez zapuztea.
- Haurrak diren bezala onartuak izatea.
- Maitatuak sentitzea.
- Irakasleak gustura sentitzea.

ESKOLA TXIKIAK UTOPIA BIDEAN. Beraien ustez, aurreko guztia lortzeko bidea proiektu bitartez lan egitea izango da. Eta hemen horietako bat azalduko dugu, “**aiton – amonen bisita**” hain zuzen ere. Proiektu honekin 3 helburu lortu nahi izan zituzten; aiton-amonak eskolako partaide izatea, belaunaldien arteko transmisioa gauzatzea eta ikasketa prozesu esanguratsu eta globalizatzailea bultzatzea.

Ondorengo hauek izan dira burututako lanak;

- Galderak prestatu.
- Materiala prestatu.
- Elkarrizketa.
- Aiton-amonek dakarten ekintza burutu.
- Ikasitakoa idatzi eta liburuxkak eratu.

Esperientzia oso positiboa izan zen guztientzat, ikasle, irakasle baita aiton-amonentzat ere.



GURASOEN TAILERRA

Jexus Mari Arizmendi

PARTE HARTZAILEAK: Angiozar (2), Bidegoian, Zizurkil, Lizartza, Igeldo, Ereñozu (2), Alkiza, Arrankudiaga (3), Artzentales, Gatika (2), Lemoiz, Roser Boix

Eskola bakoitzekoek euren eskolako ezaugarri nagusiak aurkeztu zituzten.

Aipatutako ideia nagusiak:

Irakasle eta gurasoen arteko harreman onak garrantzi handia du. Batzuetan irakasleek ez dute nahi izaten guraso partehartzailerik.

Irakasleen egonkortasun falta arazo larria da.

Arrazoiak asko dira, baina batzuetan irakasleak ez dira eroso sentitzen formazio espezifikorik ez dutelako eta ondorioz ez dute eskola txikian jarraitu nahi.

Euskal Herrian ez dago Eskola Txikien kulturarik, ez guraso, ez irakasle, ez udal giroan ezta Hezkuntza Administrazioan ere. Eskola Txikien errealtatea esparru ezberdinetan zabaldu beharra dago: Unibertsitatean, herrietan...



ARTEAREN INGURUAN: Murtze Amondarain

BERROBIKO ESKOLAko irakasleen klaustroak erronka berri bati aurre egin dio. Hemen azalduko da 4., 5. eta 6. mailako ikasleek, tutorearen laguntzaz, egin duten lana proiektu zabal honetan. Guztira gelan 10 ikasle izan dira. Proiektuaren gaia irakasleak aukeratu izan da, berari pertsonalki asko gustatzen zaiolako: "Oteiza eta XX. mendeko artea".

Lehen pausoa informazioa biltzea izan zen. Lan hau irakasleak hasi zuen eta ikasleei informazioa pasatzen hasi zen. Poliki- poliki ikasleen interesa pizten joan zen, Horretan, Oteizaren museora egindako bisitak lagundu zuen. Han, informazio ugari jasotzeaz gain, animatzea eta pilak kargatzea lortu baitzuten. Eta horrela, konturatu ere egin gabe lana bideratzen hasi ziren.

Ondoren, plastikako saioetan hainbat tailer antolatu ziren: bolen tailerra, klarionen tailerra, poliespanarekin, kartulinarekin bolumenak, plastilina, kartoiarekin kutxak...

Landu ziren konzeptuak: bolumena, edertasuna, adierazpena... modu xumean baina asko disfrutatuz.

Horrekin batera, Oteizaren biografia ere landu zen.

Proiektua poliki- poliki eskola osora zabaldu zen (eskola txikietako formazio saioetan artearen inguruan lan egiteko proposamena ere zabaldu baitzen) eta horrela eskola guztiaren artean " Katalogoa " egitea erabaki zen.

Katalogoa nahiko obra irekia denez, bertan azaldu daitezke artisten biografiak, obrei buruzko iritziak eta idazle-en historia txikiak ere.

Katalogoaren izenburua aukeratu zen: Artearen inguruan.

Internet eta arte liburuen laguntzaz XX. mendeko artista mordo baten biografiak eta obren berri jaso zituzten: Oteiza, Chillida, Ruiz Balerdi, Remigio Mendiburu, Nagel...

Ikasleak lana bikoteka egin zuten: testu ezberdinak irakurri eta jaso zuten informazioarekin beraien testuak sortu. Itzulpen lanak ere egin ziren informazio asko gaztelaraz jaso baitzen.

Artista batzuekin (edota beraien familiakoekin) harreman zuzenagoak ere izan ziren, galdera batzuk bidali zitzaizkien eta beraien erantzun egin zituzten: Ameztoy, Arias, Dora Salazar, Jose Ramon Amondarain...

Beste batzuk, aldiz, eskolan izan genituen: Manu Muniategiandikoetxea eskolara etorri zen, Koldobika Jauregi eta Goenagaren tailerrak ikusteko aukera izan genuen, Miren Gonzalezek ere bere erakusketa erakutsi zigun...

Lan hau guztia egiteko hiru hizkuntza erabili zituzten: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Lanari bukaera emateko, katalogoa inprimategitik atera aurretik erakusketa antolatu zuten eskolan eta eskolako partaide eta herritar guztientzat izan zuten zabalik, eta jakina, horretarako ordutegi egokiak antolatu zituzten (informazio gehiago web orrian).



TXINKORTA ESKOLA

(Amara-Berri sistemara egokitzen)

Pello Ezeiza

BIDEGOIANGO TXINKORTA ESKOLAⁿ,

2005-06 ikasturtean, eskolaren egoera birplanteatzeko beharra ikusi genuen.

Taldearen lana bultzatuz ikastetxearen lerro metodologikoa markatu nahi genuen, baina testu liburua ez genuen ikusten funtzionamendu oinarri bezala. Amara Berri eta Antzuolako eskolen erreferentziak azter gai hartu genituen. Azkenean, errealismoaren aldeko apostua egin genuen Amara Berri Sistema hautatuz.



Amara Berri Sistema orain dela 25 bat urte sortu zen eta gaur egun 18-20 eskolatan ezarrita dago, denen artean Sare bat osatuz. Txinkorta eskolan 2006-07 ikasturtean hasi ginen sarean parte hartzen. Sareko eskola txikiena izanik erronka interesgarritzat jotzen dugu Sistema hau gure eskolaren ezaugarrietara egokitzea. Gure ustez, 5 gelako eskola txiki batean oso ondo egokitu daiteke Sistema hau.

Amara Berri Sistema testuinguru egonkor eta osagarrietan antolatuta dago.

Gainera, ekintza biziak bultzatzen dira eta ikasleen autonomia eta erritmo desberdinen onarpena garrantzitsua da. Era horretan, ikasten ikasi eta norberaren autonomia garatzeko gaitasuna lantzen da. Bestalde, programak zikloka antolatzen dira eta ekintza guztiak funtzio sozial bat dute. Halaber, hedabideen garrantzia (aldizkaria, irratia, bideo/telebista...) handia da eta beste gauzen artean, horien bitartez, gaitasun teknologikoa lantzen da.

2007-08 ikasturtean, HH eta LHko 1. zikloa jarri dugu martxan. 2008-09 ikasturtean, aldiz, LHko 2. zikloa martxan jartzen hasiko gara. Gure asmoa, 3 edo 4 urte barru maila guztietan sistema ezartzea da.



LAU JAIIO BERRI ZERAINEN

Kontxi Errasti

ZERAINGO ESKOLA

Zeraingo irakaslea den Kontxiri, matematika gaia ere libururik gabe lantzeak beldurra eta kezka ematen zion arren, horrela lan egiteari alde on gehiago ikusten zizkionez txarrak baino, beldurrak uxatu eta proiektuen lanke-tari ilusioz ekin zion.

Lehenengo erronka, gurasoak bildu eta proiektua azal-tzearekin batera, konfiantza eskatzea izan zen. Ondoren, proiektua ikasleekin batera martxan jartzea. Eta horrela, abiada biziz, "Lau jaiio berri Zerainen" proiektua jarri zuten martxan. Kontuan izan behar da, Zerainen, urte batean, lau haur jaiotzea ez dela ohikoa.

Proiektu hau, sei fase desberdinetan landu zuten: Fasea; jaiio berriak ezagutzeko hartu behar diren eraba-kiak.

- 1-: galdetegia prestatu.
- 2-: jaiio berrien inguruko kantak.
- 3-: konparazioak. Gu orain eta txikitan.
- 4-: norberaren zuhaitz genealogikoa.
- 5-6-: autobiografia egin eta lanen azalpena.

Aurreneko hiru faseetan, hizkuntzako edukiak landu zituzten; galderak prestatu, erantzunak jaso, haur bakoitzaren fitxa, haur kantak, poesia, irakurketa-idazketa... Laugarren fasean, aldiz, matematikako edukiak landu zituzten; magnitudeak, grafikoak, problemak... Bosgarren fasean, gaztelera eta ingelera landu zituzten. Eta seigarrenean, azkenik, ahozko azalpenak egiteko prozedurak autobiografiarekin batera.



INGURUKO HEGAZTIAK

Ixidro Rodríguez
J. L. Bardón

Inguruko hegaztiak proiektua
GAUTEGIZ- ARTEAGAKO "MONTORRE"
eta **MUXIKAKO " URRETXINDORRA "**
ikastetxeko irakasle eta ikasleek egindako
lana da. Lana " Elaia Bird Migration Centre "
deritzonak koordinatu du eta udalerrri hori-
etako bizilagun guztien partaidetzara irekita
dago.

Inguruko hegaztiak proiektuaren helburuak ez dira hegaz-
tiak ezagutzera eta ikertzera mugatzen; hain zuzen ere, hel-
buruak hauek dira:

Diziplina anitzeko eta zeharkako ikaskuntza garatzea, esko-
la- curriculumaren gainerako ikasgaiei dagokienez (mate-
matika, geografia, hizkuntzak, informatika, plastika).

Taldean lan egiten ikastea, erantzukizunak hartuz, helburuak
finkatuz eta emaitzak ikusiz.

Eskola-prozesuan inplikaturiko eragile guztiek (irakasleak,
ikasleak eta gurasoak) hurbileko natura-ingurunea eta,
zeharka, hona datozen hegaztien jatorrizko lekuak orokorre-
an ezagutzea.

Hegaztien jarraipena egitea, horien aldi biologiko guztietan:
negutea, ugalketa-garaia eta migrazioa. Horretarako,
euren biologiari buruzko landa-datu erabilgarriak lortu
behar dira.

Esperientziak Urdaibaiko beste ikastetxe batzuekin parteka-
tzea eta konparatzea.

Giza jarduerak espezieen biziraupenean eta biodibertsitate-
aren kontserbazioan duten inplikazioa ezagutzea.

Inguruko hegaztiak proiektua ez da jarduera isolatua, irau-
kortasunez garatzen baita ikasturte osoan; horren barruan,
hegaztien bizitzako 3 aldi hartzen dira kontuan: negutea,
ugalketa-garaia eta migrazioa.

Bi ikastetxeren inguruan jan-ontziak instalatuko dira, neguan hegazti txikien presentzia iraunkorra izateko. Jan-ontzietatik metro batzuk harago, habia-kaxak jarriko dira, amilotxak eta kaskabeltzak udaberrian ugaltu ahal izateko; horrela, kumeei eraztunak jarri eta balio handiko informazioa lortuko dugu.

Ondoren, ikastetxeko ikasgela batetik, ikasleek hegaztiak ikusi eta horien jarraipena egingo dute eta jarraipenari dagozkion landa-fitxak beteko dituzte. Aldi berean, teknologia berriak erabiliz, ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, bil-dutako informazioa prozesatu eta materialak landuko dituzte (posterrak, argazkiak...) eta ikastetxean erakusgai jarriko dituzte.

Hegaztiak / Las aves

Kaskabeltz handia / Carbonero común / parus major

Baskabeltz handia / Carbonero común / parus major. Hegazti hau ez da bakarrik ikusirik, baizik eta oso ugari da. Bere koloreak oso erakargarriak dira, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da.



Aurreko eta ondorengo hegaztiak oso ugariak dira, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da.

Amilotx urdina / Herrerillo común / Parus caeruleus

Hegazti txiki da, baina bere abarriketa oso erakargarria da. Bere koloreak oso erakargarriak dira, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da.



Aurreko eta ondorengo hegaztiak oso ugariak dira, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da.

Txontea arrunta / Pinzón común / Fringilla coelebs

Txontea arrunta / Pinzón común / Fringilla coelebs. Hegazti txiki da, baina bere abarriketa oso erakargarria da. Bere koloreak oso erakargarriak dira, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da.



Aurreko eta ondorengo hegaztiak oso ugariak dira, eta bere abarriketa oso erakargarria da. Hala ere, bere abarriketa oso erakargarria da, eta bere abarriketa oso erakargarria da.

Aves de nuestro entorno

JATETXEA

Agurne Renobales

Proiektu hau **BERROBIKO ESKOLA**ko 4 eta 5 urteko ikasleek egin dute.

Proiektuaren azken xedea hau izan da: **“Jolastuz jatetxeko pertsonaien rol desberdinak ezagutzea”**.

Hiruhilabete baterako lana izan da. Lan honen helburua izan da ikasleak jatetxe batean dauden pertsona bakoitzaren eginkizunez jabetzea: mahaia zerbitzatu, janaria prestatu, kobratu, ordaindu, menua prestatu...

Hainbat kontzeptu landu dira: menua, dirua, janariak, edariak, tresnak, jantziak, kantitateak, zifrak...



Egin diren jardueren artean batzuk hauek izan dira: sailkapenak egin, menuak antolatu, prezioak jarri, dirua erabili, materiala era egokian erabili, jantzi-erantzi, jolastu eta ondo pasa,...

Zenbait ekintza konkretu:

Jatetxea jartzeko behar diren tresnak eta gauzak arbelean zerrendatu.

Prestatu, erosi edota etxetik ekarri: mantelak, platerak, kubiertoak, bandejak, edalontziak, jantzi aproposak, dirua, koadernoak, boligrafoa...

Jatetxeari izena jarri. Denon artean adostu dugu.

Menuaren prezioa jarri.

Sukaldariaren eginkizuna azaldu, adostu: mahaia prestatu, janaria jarri eta sukaldea txukundu

Zerbitzariaren eginkizuna azaldu, adostu: mahaia prestatu, menua erakutsi eta apuntatu, kobratu eta mahaia jaso.

Berrobiko jatetxea bisitatu, Mertxe zerbitzariari elkarrizketa egin aurrez prestatutako galderak eginaz.

Menuen fitxeroa egin: 1go platerak, 2. platerak eta postreak.

Asteko menuak idatzi, bikoteka eta txandaka (ordenagailura pasa).

Jatetxeko pertsonai bakoitzari dagokion jantzia jantzi (denon artean erabaki zein arropa).

Bezeroak, jatetxera joan aurretik dirua prestatu behar du. Prezioak aldatzen joango dira. Kalkuluak egiten joan behar da.

Asteko menua eta jasotako diru kopurua koadro batean idatzi eta konparaketak egin. Ordenatu: handiena, txikiena...

Blog-ean eta web orrian idatzi.



PORTFOLIO EUROPARRA: LEMOIZKO ESKOLA (hizkuntzen pasaportea)

Natxo Ormaetxea
Juanjo Gascon
Bego Iturkaitz

ZENBAIT ALDERDI ETA ONDORIOAK: HISTORIA

Lemoizko eskola berria zenez dokumentuak egin behar izan ziren eta erabakiak hartzeko hausnarketa bateratua egin behar izan zuten.

Abiapuntuak:

Inklusioa: denontzat.

Eskolako eta herriko estamentu guztien parte hartzea.

Barneko koherentzia.

Haurren ikasteko modua: esanguratsua.

Hizkuntzen balioa: inguruarekin harremanetan jartzeko zein ikasteko.

EGUNEROKO PRAKTIKA:

Eskolan erabiltzen diren hizkuntzek balio berdina dute, beraz, trataera berdina izan behar dute.

Inguruko baliabideak aprobeztatu egin behar dira (ama hizkuntza desberdinak).

Proiektu hiru eledun globalizatua: hiru hizkuntzak behikularrak.

ZERGATIK PORTFOLIOA?

Bi kezka zituzten batez ere: nola egin hiru hizkuntzen trataera bateratua eta nola ebaluatu.

Proiektuak erabilera behikularra bultzatzen du.

Klaustroaren egonkortasun falta: euskarri bat behar zuten, ildo komun bat bertakoentzat zein irakasle berrientzat.



- Prozedurak bultzatzen ditu.
- Oso tresna ona da hizkuntzen gaitasuna lantzeko: ume bakoitzak hizkuntzen arloan dituen gaitasunak zein zailtasunak identifikatzeko baliagarria da.
- Kultur artekotasuna lantzen du.
- Autonomia: ume bakoitzak bere txostenetan azaltzen du noiz izan dituen zailtasunik handienak eta noiz pozik gehienak (zein egoeretan) ere.
- Hizkuntzen arteko transferentziak egiten laguntzen du.

EGINDAKO JARDUERAK:

Girotzeko ekintzak:

- Gurasoekin bilerak: (06/07):
- Proiektua azaldu.
- Beraien parte hartzea bultzatu: kultur anitzak.
- Ikasleekin: nork ekartzen ditu jostailuak? Kultur desberdinak landu zituzten.

PORTFOLIOA martxan:

- Etxeko hizkuntzak eskolara ekarri: ipuin saiok. Familien inplikazioa.
- Biografia: portfolioak betetzen ditu bizitzaren etapa guztiak, hizkuntzen etapak. (Etapak bakoitzean hizkuntza maila bat erabiltzen da).

BALORAZIOA:

Alde onak:

- Ebaluatzeko irizpideak argiago dituzte: irakasleak zein ikasleek (auto -ebaluazioa).
- Beste kulturak baloratzeko balio du.
- Hizkuntzak ikasteko motibazioa errazten du.
- Beraien arteko koordinazioa egiteko balio du.
- Curriculum berria idazteko balio du (gaitasunak).
- Unitate didaktikoak gauzatzeko balio du.
- Hizkuntzen trataera bateratua egiteko tresna oso ona da.

Zailtasunak:

- Maiztasuna. Proiektu isolatu bat bihurtzeko arriskua: materiala noizean behin erabiltzeko prestatuta dago.
- Jarraipena: Bizitza osorako prestatuta dago: (DBHn jarraipena?)
- Klustroaren inplikazioa: DENOK GARA HIZKUNTZA IRAKASLEAK (soinketa, musika...).





BIHURRIKERIEN LIBURUA

Marga Valencia

Bihurrikerien liburua **ARRANKUDIAGA ESKOLAN** egindako egitasmo bat da. Proiektu hau 1. zikloko gela batean egin zuten eta matematikako eta hizkuntzako helburuak landu zituzten. Proiektu erakargarria eta bizia suertatu zen ikasle eta irakasleentzat eta ondorioz oso emaitza onak lortu zituzten. Hau izan zen proiektuaren garaipena:

EGOERA

Lehen zikloko gela bat:


1. mailako bost ume
2. mailako 12 ume

Ikasturte hasieran, gaiarekin hasi baino lehen 1go mailakoek ez dakite dekodifikatzen eta horretarako aitzakiak jartzen dituzte. 2. mailako ikasleek aldiz, idazketa hobetu behar dute.

KONTESTUA

- Bihurrikeriak kontaktzen harro sentitzen dira.
- Helduak izango direnean gogoratzeko, idaztera gonbidatzen ditugu
- Familiakoek ere bihurrikeriak egiten zituzten... kontatu eta idatzi.

BIHURRIKERIAK DENBORAN KOKATU



KATALUNIAKO LANDA EREMUKO HEZKUNTZA BEHATOKIA Rosier Boix

BARTZELONAKO UNIBERTSITATEKO
DOKTOREA



Hezkuntza Behatokia Kataluniako landa eremuko etorkizuneko erronka da, eta bere helburuen artean daude: praktika onak biltzea, materialak sortzea eta ikerkuntza eta dokumentazio zentro bat izatea. Herrietan dauden hezkuntza eragileen artean elkarlana egingo da. Hala nola:

- Landa eremuko eskoletako irakasleak.
- Unibertsitateko irakasleak.
- Guraso elkarteak.
- Heziketa ez arautuko taldeak.
- Hezkuntza ordezkariak.
- Bestelako ordezkariak.
- Foru Aldundiak.
- Sindikatuak.

Bere oinarria pedagogikoa da eta ez du, inolaz ere, super estruktura bat izan nahi. Landa eremuko eskoletako baliagarria izango den tresna bat izan nahi du. Ereku publikoan egon arren ez da inongo administraziokoa, alderantziz administrazio guztiak egongo dira bere osaketan. Bere izaera erabat partehartzailea izango da. Hezkuntza sare bat egiteko modua izango da.

Informazioa jasotzeko: <http://oberc.fmr.cat>

**NOLA IKASTEN DUTE HAURREK
ESKOLA TXIKIETAN?
ZER FUNTZIO BETETZEN DUTE
TALDE HETEROGENEOEK
IKASLEEN HEZIKETAN?**

Roser Boix

**BARTZELONAKO UNIBERTSITATEKO
DOKTOREA**

Badirudi, gaur egun, oraindik ere, hiritik datorren guztia dela onena eta modernoena. Nekazari girokoa den guztiarekiko nolabaiteko gutxiespena dago. Eskola Txikiak bigarren mailakoak dira, denak nahastuta daudelako; ikasleak eta herriak bigarren mailakoak dira, eta familiak ere bai. Guztia da bigarren mailakoa. Gaur egun, oraindik, talde heterogeneoen balio pedagogikoa argudiatu beharra dugu. Hori dela eta, Eskola Txikiak hiriko eskolaren antza izan behar du; horrela erakusten digute unibertsitateak, politikariek, zuzendari nagusiek... Hiriaren antza izan behar dugu, baina zergatik? Frogatu al dute hiriko eskoletatik haur guztiak jakintsuak ateratzen direla? Eskola txikitik ateratzen diren hurrekin duten aldea aipagarria al da? Niri ez didate hori erakutsi, ez maistra moduan, ezta ama moduan ere. Zergatik izan behar dugu, orduan, hiriko eskolaren antza?

Beharrezkoa da Eskola Txikien pedagogia balioestea, eta egin beharreko galdera hauxe da: nola ikasten dute nire ikasgelako ikasleak?

Eskola Txikietako ikasgelak arrain ontzi baten antzekoak dira; dena entzuten da, eta dena ikusten da. Eta aberastasun ikaragarria da hori, zeren txikiagoak diren hurrekin lanean ari garenean eta ahozgoran ari garenean, zaharragoak entzun egiten gaituzte, eta horrek esan nahi du ikasitakoa gogoratzen ari direla. Eta alderantziz, zaharrenekin ari garenean, txikiak edukiak aurreratzen dituzte handien moduko-

ak izan nahi dutelako. Batzuek aurreratzen duten eta besteek finkatzen duten prozesu hori existitzen bada, zergatik gerarazi behar dugu hori irakasleok edo testu liburuak? Hori da eskola txikietan dugun aberastasunetako bat, eta, gainera, taldean guztiek dute elkarren artean tutore lana egiteko aukera.

TUTORETZA EKINTZA: ikasle horien tutoretza ekintzak guztiek guztiari irakatsi beharra dakar, eta, horretarako, gaitasuna lantzea. Tutorea den ikasleak bitartekari lan egiten du irakaslearen eta ikaskideen artean; lanak eta arazoak ebazteko mekanismoak garatzen ari da. Gaitasun metakognitiboak deitzen ditugunak bilatzen ari da, eta komunikazio arazo bat ebatzi behar du besteak uler diezaion. Bizi izan duen esperientzian zehar bereganatu dituen gatazken ebazpenerako mekanismoak ere garatzen ditu; hari gertatu zitzaion zerbaite ikaskideari gerta ez dakion, ulertarazteko beste era batzuk bilatuko ditu. Auto- ezagutza garatzen du, eta bere autonomi maila erakusten du. Eskareei erantzuteko gaitasun sozialak eta elkarbizitzarako gaitasunak erabiltzen ditu, eta elkarrekintza horretan bere burua aberasten du. Tutore lana egiten duen haurrak ikasteko existitzen diren hamaika alternatiba ezagutzen ditu.

Ikaslearen autonomia ere lantzen ari gara, eta nik haur autonomoak nahi ditut, haurrak, ikasgelan

sartzen direnean, nire beharrik ez izatea nahi dut. Nire irakasle papera suhiltzaile papera bihurtzeko, su txikiak itzaltzen joan naitekeelako. Nire ikasleak egiten dutenarekin ziur egotea nahi dut; hanka sar dezatela, edo ez, baina ziur egon daitezela nahi dut, eta justifikatutako erabakiak hartzeko gai izan daitezela.

Baina, suhiltzaile paper hori egiteaz gain, irakasle gisa badut beste funtzio bat ere, eta horietako bat oinarrizkoa da: ikasleen ikaskuntza erritmoa errespetatzea; eta horrek testu liburuak albo batera uztea eskatzen du

Hori guztiaz gain, Eskola Txikietako ikasgelak mikro gizarteak dira:

- Berezitasunetikiko eta interes pertsonalekiko zein taldearen interesetikiko errespetua.
- Adiskidetasuna, elkarri laguntzea eta jokabide etikoen garapena.
- Pentsamendu dibergentea; eskola txikietan haurrarendik datorrena baliagarria da.
- Ardura, eta bere buruarekiko eta komunitateko beste kideekiko duintasuna.
- Norberak eta taldeak hartutako betebeharretikiko konpromisoa.
- Ekintza bateratuetako partaidetza; batez ere 3-12 urte bitarteko haurren artean, elkarlan

ahalbidetzen duten estrategia didaktikoak erabiltzen badira.

- Gaur egun kooperatibo hitza modan dago. Baina eskola txikietan parte hartze zuzen eta aktibo hori izaten da, eta hori da dugun aberastasunetako bat.

METODOLOGIAREN GARRANTZIA: zergatik ez ditugu gogoratzen ikasten ditugun gauza gehienak? Zer egin dugu hainbeste urtetan eskolan ez baditugu ikasi ditugun eduki gehienak gogoratzen? Metodologi arazoa da.

Metodologia tradizionala; protagonista handiena eskola-liburua da.

- Espazioaren antolaketa: era tradizionalan protagonista irakaslea da (logozentrismoa) eta ikasle guztiak hari begira daude.
- Denboraren antolaketa: ordutegi itxiak dira.

Metodologia aktiboa edo mistoa; protagonista haurra da (paidozentrismoa), ez eskola-liburua, ezta irakaslea ere.

- Espazioaren antolaketa: graduak desagertu egiten dira.
- Denboraren antolaketa: ordutegiak ez dira itxiak.

Estrategia didaktiko berritzaileak erabil ditzakegu, gai bera adin tarte guztietan lantzeko aukera emango digutenak, irakasleak berak landutako materialak erabiliz eta inguruarekin lotura duten edukiak sartuz. Kanpoko curriculumak ikasgelan sar dezakegu, eta proiektuetan oinarritutako metodoen bitartez, inguruaren azterketak eginez, kontratu didaktikoen bidez, hainbat talde teknikaren bidez...metodologia mistoa –aktiboa landu dezakegu, haurra irakaskuntza- ikaskuntza prozesuko egiazko protagonistatzat hartuta. Proiektuetan oinarritutako metodoek, estrategia didaktiko gisa, Eskola Txikietan etengabe bilatzen dugun autonomia lantzeko aukera errazten dute, eta gaitasun kognitiboak eta jokabideei dagozkien gaitasunak lantzeko aukera ematen digute

Katalunian Eskola Txikiaren aldeko apustua egiten dugu, talde heterogeneoen aldeko apustua, talde heterogeneoen balio pedagogikoaren aldeko apustua, eta pixkanaka- pixkanaka metodologia aktiboari dagozkion estrategia didaktikoak erabiltzean aurrera pausoak ematen joan gara.

TTUNKURRUN: HITZAREN BEROTASUNA Juan Kruz Igerabide



"Hitzaren berotasuna" ipini dut izenburuan. Izate osoarekin adierazten den hitzaz ari naiz; ez buruz ikasi den zerbaitez soilik, baizik eta norberaren behar afektiboekin loturiko zerbaitez. Aspaldi aurkitu zuen Freudek gure jokabideen jatorria ezkutuangoela, gure bizipen afektibo-emozionalekin lotua; berak sexu-grinarekin uztartzen zuen jatorri hori; beste ikertzailere batzuek oinarri zabalagoa eman diote jatorri horri, betiere bizipen afektibo-emozionalen baitan, baina sinbolo bihurturiko giza esperientzia unibertsalekin uztarturik.

Ttunkurrunkun-en erara, silabak modu horretan erabiliz kantatuak eta esapideak osatzeko joera oso zaharra da, inondik ere. Bada dioenik hizkuntzen sorrerarekin loturik dagoela joera hori. Onomatopeiak eta hitz bikoizketak (atxia-motxia eta horrelakoak) aztertu dituztenek oso atzera jotzen dute, hizkuntza indoeuroparrak kontinentean sartu aurreko garaietara, agian Paleolitoraino (nahiz eta hipotesi mailan geratu kontu horiek). Ez dakit noraino jo daitekeen atzera, eta ez diit asko axola horrek gure auzi honetarako. Pertsonaren barrura oso sakonera iristen direla, hori edonork proba dezake. Eta pertsonaren barrura iriste hori nolabait gizakiaren jatorrira ere iristea bada. Poema batek sakonean ukitzen zaituenean (edo berdin beste edozein arte-lanek) zugar oso zaharra den zerbaitez pizten du, gizakia gizaki denetik datorren zerbaitez. Eta horrek bizi-indarra ematen dio gure psikeari, gure arimari.

BIZKAIKO HIRU ESKOLA TXIKIEN PROIEKTUA Nekane Otsoa

**ARRANKUDIAGA, AREATZA ETA
ZEBERIO**ko eskolen artean urte batzuk
badira proiektu komuna gauzatzen dela.
Proiektu hau gauzatzeak geletako
metodologiak bateratzea dakar.



GURE METODOLOGIAREN ARDATZ NAGUSIAK:

Ez dugu testu libururik. Umeekin proiektuak egiten dira.

Proiektuak umeentzat interesgarriak izan behar dira: umeen interesetatik abiatuta.

Umeek esaten digute zer ikasi nahi duten eta guk osotu egiten dugu.

Arlo ezberdinetako ezaguerak behar izango ditugu aukeratutako proiektu horretan sakontzeko.

HIZKUNTZAK lagunduko du, informazioa bilatu, irakurri, ulertu, interpretatu, besteei azaltzeko idatzi, testuak... Hizkuntza ezberdinetan egon daiteke informazioa edo idatzi beharra: gaztelera, euskara, ingelesea. Baita ere **MATEMATIKAK**: atletismo pista egin nahi badugu geometria, neurriak, zirkuluaren luzera, pl...

BALOREAK eta **SENTIMENDUAK**: olinpiadetan euren ispiritua, lehiakortasuna; lurra planetarekin nola zaindu, erasoak...

Umeen galderei, kezkei erantzutea izaten da helburua. Horren ondorioz ziurtatu egiten da testuinguruari lotua egotea, funtzionalitatea izatea, zentzua izatea umeentzat.

Gelak polifonikoak dira:

- Umeek era ezberdin batean erantzuten diete planteatutako galderari, erronkei. Umeen aurreiritziak lirakeenak.
- Bakoitzak ideia bat dauka, mundua ulertzeko modu bat. Hipotesi ezberdinak.
- Ideia guztiek balore berdina dute. Batzuk ez dira besteak baino hobetoagoak, ezta ere txarragoak.
- Polifonia balore bat da.
- Irakasleen erronka polifonia, ideia ezberdin horiekin nola lan egin izango da.

Gelakideen arteko elkarrizketak antolatu eta kudeatu. Ikas komunitatea eratu:

- Ikasteko modu bat.
- Umeen arteko interakzioak: Adin ezberdinetako umeak.
- Besteen iritziak ezagutzeko. Beste ikuspuntu batzuk ezagutzeko.
- Argudiatu egiten da, arazoibideak ematen dira.

- Adostasunak lortzeko edota desadostasunarekin bizi ahal izateko.
- Komunitateko beste kideen iritziak entzun: gurasoak, jakitunak
- Gelakideen ideiak publiko egin.
- Gelakideen sentimendu eta emozioei tokia uztea, kontuan hartzea, presente egotea, kudeatzea.

ANTOLAKUNTZA:

Ardatz metodologikoak gauzatzeko:

- Hasieran egun batean ziklo guztiak. Koordinatzaile ezberdinekin.

Koordinatzaileak euren bilerak

- Gero zikloko bilerak egun ezberdinetan:
- Ordutegi barruan, bi ordu jarraian
- Koordinatzaile bakarra.

Ziklotan zer egiteko?

- Gaia aukeratu, umeen iritziak entzun, proiektua gorpuztu.

- Gelarako proposamenak prestatu.
- Proposamenen emaitzak aztertu. Umeen ideiak aztertu, horrela nola pentsatzen duten jakingo dugu, zeintzuk diren euren hipotesiak dakiten, ezagutzen duten, ulertzen duten. Horren ondorioz interbentzioa eta proposamen didaktikoak antolatuko ditugulako.
- Proposamen berriak egin.
- Emaitzak berriro aztertu....
- Proposamenen egokitasuna baloratu.
- Ebaluazioa diseinatu: proposamenena, ikasleen prozesuarena.

Zikloetako antolakuntzak erraztu egiten du:

- Bakarrik ez sentitzea.
- Irakasleen arteko trukaketak egotea: errekurso trukaketa, ideia trukaketa...

Metodologia:


- Praktikaren hausnarketa izango da printzipio nagusia. Gelan gertatzen dena behin eta berriro aztertu egingo da, bai umeei esaten eta egiten dutena, bai irakaslearen interben-

tzioa, eta bere eragina gelako funtzionamendua eta ekintzetan.

- Eskola bakoitzean hilean behin zikloetako lanari buruz hitz egin, eskolan behar diren neurriak hartzeko.

ARAZOAK/OZTOPOAK:

- Irakasleen egonkortasun falta. Behin eta berriro hasi egin behar.
- Arduradun batentzat orduak egotea.
- Irakasleen lan hipotesiak aldatzea.



ONDORIOAK

Dagoeneko hiru topaketa egin ditugu eta liburu honetan azkenekoaren mamia jaso dugu, hain zuzen ere. Hiru topaketa ez dira gehiegi behar bada, baina bai hainbat gauzaz jabetzeko eta merezi duten adinako balorazioa egiteko lain.

Eskola Txikietako irakasleok behin eta berriro eskatu eta aldarrikatu izan dugu formazioaren beharra, gure ezaugarri bereziei erantzungo dien pres-takuntza ezinbestekoa baitugu. Eta honetan datza, hain zuzen ere, topa-keta hauen arrakasta.

Alde batetik, irakasleok praktika egokiak ezagutzeko aukera dugu topake-totan eta benetan daukagu estimu handian ekimen hau, nahiz eta motz gelditzen garen (tailer gehiagotan parte hartu nahiko genuke). Bestetik, kanpoko errealitate baten azalpena ere jasotzen dugu: aurten Roser Boix izan dugu eta bere esperientzia oso interesgarria iruditu zaigu. Ziur gaude Unibertsitatekoekin dauzkagun harremanetarako ere lagungarria izango dela.

Bukatzeko, ezin utz dezakegu aipatu gabe gurasoen tailerra, urtero gauza-tzen dutena eta emaitza oso txukunak ematen dituen, aurrera egiteko indarra emateaz gain.

Partaidetza aldetik zenbaki egokietan gabiltzala esango genuke, 132 par-tehartzaille kopuru ederra baita, eta batik bat, horiengandik jasotako balo-razio oso on hori hartzen dugu aintzat. Beraz, IV. Topaketa antolatzeke inda-rra eta adorea jaso dugunez, hobetu beharrekoa eta daitekeena hobetu eta AURRERA!!!



Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarten Koordinakundea
Bizkaiko Eskola Txikietako Guraso Elkarten Koordinakundea
EHIGE, Euskal Herriko Gursoen Elkartea
Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskola Txikietako Irakasleak
2008ko ekainaren 25a. Durango